



Soldatak eta enplegua

2. Doikuntza politiken ondorio larriak



- Politika hauekin aberastasun banaketa are bidegabeagoa da
- Krisia erabiltzen dute lan-errentak ahalik eta gehien murrizteko
- Hala, enpresa eta kapital errentak handitzea lortzen dute
- Langabezia/pobrezia eraginez



a) Herritarren pobretze orokorra

- Nafarroan 50.000 pertsona hilean 454 € baino gutxiagorekin bizi da
- 157.000 pertsona pobrezia arriskuan dauden etxeetan bizi da EAEn
- 35.000 familiek elikadura eskatzen dute
- Enplegua izanda pobre direnen kopuruak gora egin du



b) Desberdintasun sozialak gora

- NDF eta OCDE-k onartzen dute
- Azken 3 urtetan aurreko 12etan baino gehiago hazi da:
 - %6 Estatu espainiarrean
 - OCDE-ko 34 estatuetatik 8. postuan dago Estatu espainiarra



- Batez besteko errenta %3 jaitsi zen Estatu espainiarrean
- Populazioaren %10 pobreenean %14 jaitsi da batez besteko errenta
- Politika hauekin jarraituz gero desberdintasunek gora jarraituko dute
- Hain justu, helburu hori lortzeko ezarri dizkigute erreformak



c) Atzeraldia eta langabezia gora

- Krisitik ateratzeko pasa beharreko mina dela sinestarazi nahi digute
- Ekonomia berpizteko modua dela
- Errealitateak erakusten du, errezeta hau ezarri den lekuetan:
 - Atzeraldian sakondu dela
 - Langabeziak gora egin duela



- HEHn BPGa % 5,5 erori da
- Eurogunean BPGa %1,5 hazi da
- Soldatak murrizteak ez du lehiakortasuna handitzen
- Lan kostuak jaistean gora egiten du langabeziak eta atzeraldiak



d) Defizit publikoa handitzen da

- Soldata eta enplegu gutxiagorekin:
 - Gizarte Segurantzaren sarrera gutxiago
 - Ogasunean sarrera gutxiago
 - Gastu handiagoa prestazio sozialetan
 - Gastu sozialean aurrezteko, ez dira kopuruak murriztu edo eskubideak mugatu behar, enplegua handitu baizik



e) Krisia ongizate estatua deuseztatzeko aitzakia gisa

- Lan erreforma
- Negoziazio Kolektiboaren erreforma
- Pentsio sistemaren erreforma
- Privatizazioak
- Gastu publikoan murrizketak



- Beharrak handitzen direnean zerbitzu publikoak murriztuta, indibidualismoa bultzatzen da (neure burua salbatu)
- Behar sozialekin lotutako jardunak negozio iturri bihurtzen dira
- Sarrera publikoak enpleguaren eta soldaten neurrikoak izango dira
- Soldata ez da lan-kostu hutsa:
 - Ongizate estatua garatzeko oinarria da

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

Soldata
dirua baino
gehiago da

LUCHAR
POR EL SALARIO
ES LUCHAR
POR EL EMPLEO